



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO UZTAILAREN 27AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Uztailaren 27an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Jose Javier Auza, Iker Isiegas, Alaia Etayo, M^a Mar Ansorena eta Micaela Elizalde.

BERTARATU EZ DIRENAK: Julen Beunza Arano.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Ekainaren 17, 21 eta 26ko ez ohiko batzarren aktak onartu dituzte bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali direnak

2.- Alkate ebazpenak

-Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.- 2023ko plantilla organikoa. Behin betiko onespena.

Alkateak azaltzen du hasiera onespena maiatzaren 23an egindako osoko bilkuran egin zela eta 1990/6 Toki Administrazioako Foru Legearen 325. Artikulua jarraituz Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen ekainaren 5eko datarekin (116.

Aldizkarian), 15 eguneko epean jende aurrean egon da espedientea alegaziorik aurkeztu gabe hortaz behin betiko onespena ematea dagokio,
 Hau da plantilla organikoaren zehaztapena:

ZBKIA	LANPOSTUAREN IZENA	MAILA TALDEA	SARBIDEA	Osagarriak	Hizk. profila	EGOERA
01	Administrari-ofiziala	C	Barne promozioa	%12 M.O. %28 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
02	Zerbitzu anitzetako langilea	D	Oposizio lehiaketa	%12 M.O. %42 L.O.	C1/EGA ahoz, B1 idatziz	Hutsik
03	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%46,38 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
04	Garbiketa zerbitzua	E	Oposizio lehiaketa	%25,76 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik
05	Haur Eskolako zuzendaria	B	Oposizio lehiaketa	%23,98 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
06	Haur Eskolako hezitzailea	C	Oposizio lehiaketa	%12 M.O. %18,52 L.O.	C1/EGA edo baliokidea	Jardunean
07	Garbiketa Zerbitzua Haur Eskola	D	Oposizio lehiaketa	%12 M.O. %8,35 L.O.	B1 idatzia, B2 ahozkoa	Hutsik

IZENEN ZERRENDA

FUNTZIONARIOAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	GRADUA	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Elena Gaskue Jaunarena	Administraria	C	2000/03/28	4	%12, %28	Jardunean	%100

LAN KONTRATUDUN MUGAGABEA EZ FINKOA

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Patxi Biurrarena Barrenetxea	Zerbitzu anitzetako langilea	D	2011/11/01	%12, %42	Jardunean	%100

ALDI BATERAKO LAN KONTRATUDUNAK

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUA	MAILA	ZERB. ONART.	OSAGARRIAK	EGOERA	LANALDIA
Begoña Arano Galarza	Administraria	C	2018/10/17	%12	Jardunean	%55
Maite Sanchez Lasterra	Garbiketa zerbitzua	E	2019/04/01	%46,37	Jardunean	%60,5
Cristina De los Reyes Ayerra	Garbiketa zerbitzua	E	2019/11/08	%25,74	Jardunean	%60,5
M ^a Paz Echarri Echegui	Haur eskolako garbitzailea eta jantokiko laguntzailea	D	2017/11/02	%12, %8,35	Jardunean	%75,34
Aintzane Andueza Zabalo	Haur eskolako hezitzailea	C	2021/08/23	%12, %18,52	Jardunean	%100
Aitziber Aizpurua Torres	Haur eskolako hezitzailea	C	2021/11/12	%12, %18,52	Jardunean	%34,2

LAN KONTRATUDUN MUGAGABEAK

Amaia Legarra Beunza	Haur eskolako zuzendaria	B	2008/07/28	%23,38	Jardunean	%100
Amaia Oloriz Satrustegi	Haur eskolako hezitzailea	C	2018/09/3	%12, %18,52	Jardunean	%100

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Onartzea behin betikoz Basaburuko udaleko 2023. Urteko plantilla organikoa eta Nafarroako Toki Administrazioako Foru Legearen 1990/6 325. Artikulua jarraituz plantilla zehaztua argitaratua izan dadin agindu.

4.- 2023ko aurrekontua. Behin betiko onespena.

Aurreko gaiarekin lotuta aurrekontuari ere hasierako onespena apirilaren 25eako batzarrean eman zitzaion aurrekontuari, 1990/6 Foru Legearen 271 artikulua jarraituz Nafarroako Aldizkari Ofizialera bidali zen iragarkia, argitaratu ondoren 15 egun baliodunen epean jende aurrean egon zedin espedientea.

Epe hori bukatu da alegaziorik aurkeztu gabe eta ogasun batzordean aurkeztu eta onartu bezala aldaketa batzuk egin dira aurrekontuan.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute Nafarroako Toki Administrazioako Foru Legearen 1990/6 271. Artikulua jarraituz behin betiko onespena ematen diote 2023ko aurrekontuari, onartutako aurreikuspenak gastuetan 1.452.231.63 eurokoak dira eta 1.456.536,61 sarreretan.

5.- Ibilgailu elektrikoen zirkulazio zergaren hobariak arautzen dituen ordenantza. Behin betiko onespena.

Ordenantza hasiera batez onartu zen apirilaren 25eako ohiko batzarrean, ordenantzaren funtsa da hobariak ematea ibilgailu elektrikoek, zirkulazio zerga ordaintzerakoan, Hobariak hauek lirateke:

Eco ibilgailuentzat %25eko hobaria

0 isurdura egiten duten ibilgailuak %50eko hobaria

Hobariak bakarrik onartzen dira gehieneko 12 zaldi dituzten autoentzat ez edozein auto elektriko edo hibridoentzat.

1990/6 toki administrazioako foru legearen 325 artikularen arabera hasierako onespenerako erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da 30 eguneko epean jende aurrean egon dadin. Epe horretan ez badira alegazioak aurkeztu behin betiko onespena ematea dagokio ordenantzari eta testu osoa argiratu Nafarroako Aldizkari Ofizialean indarrean sartzeko...

Iragarkia maiatzaren 16ko aldizkarian argiratu zen eta ez dira alegazioak aurkeztu hortaz bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen due aho batez.

- Behin betiko onespena ematea Ibilgailu elektrikoen zirkulazio zergaren hobariak arautzen dituen ordenantzari eta argitaratua izan dadin agindu Nafarroko Aldizkari Ofizialean 1990/6 toki administrazioako foru legearen 325 artikularen arabera

6.- Hasierako onspena udal planaren aldaketa xehetuari, aterpeen eraikigarritasuna.

Alkateak azaltzen du hirigintza batzordetik atera zela udal planaren aldaketa hau egiteko proposamena. Aldaketaren funtsa da aterpe irekiek eraikigarritasuna izan ez dezaten, orain arte eraikigarritasunaren %50a kontatzen zitzaielako- Justifikazioa Aizarozko hainbat etxebizitzetan eraikigarritasuna agortua dute eta jardinak dituzten etxeetan ezin dira aterpeak egin...

.Bildutakoek ontzat ematen dute proposamena eta aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Hasiera batez onartzea udal planaren aldaketa xehetua, Hirigintza Arautegi Orokorraren 26. Artikuluak zehazten duena aldatzeko eta hortaz hiru fatxada irekiak dituzten aterpeek ez dute eraikigarritasunik izango.

2017/1 Foru Dekretu legegilearen 77. Artikulua jarraituz, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu eta argitaratzen denetik hilabeteko epean jende aurrean egon dadin agindu.

7.- Igoako kontzejuaren eskaera, udaletik administrazio lanak egiteko.

Alkateak irakurtzen du Igoako kontzejuak egin duen eskaera. Egun Orokieta eta Igoa dira bailarako herri bakarrak udalak ez dizkienak kontuak eta administrazio lanak eramaten.

Azaltzen du udaleko administrariaren soldataren erdiaren gastua kontzejuen artean banatzen dela.

Alde batetik kontuak eta aurrekontuak egiteagatik, eta bestetik egiten dituzten obren araberako tramitazioa eta beste egiteagatik.

Igoko kontzejuak eskatzen duena da udalak egitea goian zehaztutako lan horiek, 2023. Urtetik hasita.

Bildutakoek ontzat ematen dute eskaera eta onartutzat ematen dute hala jakinaraziko zaiolarik Igoako kontzejuari.

8.- Tragsatec empresarekin lankidetzeta. Next Generation funtsen kudeaketa.

Alkateak azaltzen du NUFK-ek Tragsaten enpresarekin lankidetzeta hitzarmen bat sinatu duela hauek Next Generation funtsen inguruko informazioa helarazi ahal izateko , gainera ere hitzarmen horren baita, Next Generation funtsetarako deialdiak eta dokumentazioa aurkezteko formakuntza emateko eta laguntzen kudeaketan ere aholkularitza ematen dute... hitzarmenean zehazten dira zerbitzu guztiak, denak debaldekoak izango dira udalarentzat.

Bildutakoek aztertzen dute hitzarmena eta ontzat ematen dute eta aho batez hartzen duten erabakia ondokoa da:

Atxikitzea Tragsatec enpresak eskaintzen duen proposamenera eta beraiek sinatu beharreko hitzarmena sinatzeko, Santos Etxegia Oronoz Basaburuko Udaleko alkatea ahalmenu

9.-Mozioa.

Ekainaren 28ko LGTBI+ pertsonen eskubideen aldeko egunaren inguruan jaso da ondoren alkateak irakurtzen duen mozioa:

Atzerapausorik onartuko ez dugula ez da soilik lelo bat. Jarrera politiko argi bat da. Egiteko asko geratzen dela argi izanda ere, lortutako apurra ezabatzeraz etorri nahi duten indar ultrakontserbadore eta faxisten aurrean askatasunaren aldeko horma bat eraikitzeke konpromisoa da gurea. Hemen zeuden, badakigu, haiek hil baitzuten Francis, baina haien gorrotoaren gainetik eraikitzen jarraitu dugu. Kanean eta instituzioetan.

Trans legeak lortu ditugu, edo LGTBI+ kontseilu munizipalak. Kaleak gureak egin ditugu eta Moio oroitzen duen plaka jarri. Eraso LGTBI+ fobikoen aurrean elkartu gara, oihukatu dugu eta bisexualitatea bizi dugula aldarrikatu dugu euskaraz. Hori eta askoz gehiago egin dugu, bizitu dugu, konpartitu dugu eta borrokatu.

Baina hemen dira, beldurrik gabe esaten eraiki dugun hori, garen hori desegingo dutela. Ez dagoela eskubide atzerazirik, ez daukagula eskubiderik. Eta guk, Ekainaren 28 honetan, garena, lortu duguna harro defendatuko dugula esatera gatoz.

laz genioen bezala, honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... eraikitzeke konpromisoan berresten gara. Aldi berean, LGTBIQ+ mugimenduaren eta instituzioen arteko zubi eta elkarlanean sendotzeko, erabaki konpartituetarako bideak ezartzeko lan egingo dugu. Faxismoaren aurrean, bakoitzak beretik, eraikitzen jarraituko dugulako. Lege gehiago, baliabide gehiago, espazio gehiago.

Horregatik Basaburuko Udalak, LGTBIQ+ mugimenduaren eta instituzioaren arteko elkarlana sustatzeko eta bertatik, bailarako dinamika ezartzeko konpromisoa hartzen dugu. Erronka konpartitua da aurrean duguna, eta bakoitzari dagokion arduratik eta espaziotik, LGTBI+ politikak eraikitzeke ezinbestekoa da honelako gunea.

Honetaz gain, gure herrian LGTBIQ+ mugimenduak izandako papera eta historia aitortzeko lan egingo dugu, haiengatik baikaude egun gauden tokian. Besteak beste, Ekainaren 10a, Erreterian eraildako Francis Vadillo trabestia erail zuten eguna trans memoriaren egun izendatzea eskatzen dugu. Bere erailketak Euskal Herriko LGTBIQ+ mugimendua bultzatu zuen modu nabarmenean.

Amaitzeko, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGBTI+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako.

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

10- Batzordeen informazioa.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa:

Hezkuntzako garraioaz arduratzen den teknikariarekin harremanetan egon da, 16 urtetik gorako garraioaren kudeaketaren inguruan. Bi zerbitzu jarri dutela azaldu zion, bat Askatasuna joango dena, Ihaben- Jaunsarats eta Aizaroztik pasako dena eta beste Irurtzunerainokoa, Lekunberritik aterako dena Jaunsarastik pasa eta irurtzunerara joango dena.

Matrikulazio datuan behin behinekoak direnez, abuztuan zehar jarraituko dute harremanetan.

Olhazabalen eskola kontseilua burutu zen, aurreko ikasturteko nondik norakoan azaltzeko eta adierazteko ikasturte berrira begira 38 ikasle egongo direla, 3 berri sartuko dira baina 13 aterako.

Guraso elkartetik eskatu da ostiraletan eta ekaina eta irailean jantokia egotea, Ausolani eskatu dio Alaiak aurrekontua baina gutxieneko 20 ume behar dituztela adierazi diote zerbitzua emateko.

Ttikienarako ikasturte berrirako errefortzuko langilea ez da kontratatuko, 12 haur direnez ikasturte hasiera. Ikasle kopurua haunditzen bada aztertuko da kontratazioa egitea edo ez.

Bukatzeko udako udalekuak hasi dira, uztaila eta abuztuan burutuko dira, eta 24 umek izena eman dutela adierazten du.

Kontzejuen batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa:

Helpbideako kartelak abere granjetan jartzeko diru laguntza onartu dute eta hortaz alkateek bere herrietako granjen zerrenda bidaliko dute.

Komunitate energetikoen inguruko bileran irailean zehar egingo direla aipatu zitzaizen alkateei eta Adamo empresa ari dela fibra zabaltzen Basaburuan zehar.

Bukatzeko udaleko web orrian atal bat izango zutela azaldu zitzaizen beraiek kudeatzeko eta informazio igotzeko.

Kirol batzordea. Jose Javier Auzak ematen du informazioa.

Abuztuaren 13an mendi ibilaldia egingen da Erro-Olabe artean. Autobusa Jaunsarastik aterako da goizeko 8etan eta Olaben bertan bazkaria izango da.

Kultura eta Euskara. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Gaitu plataformaren aurkezpena izan zen, plataforma honen bidez alexa eta beste gailu batzuk euskaraz izateko kanpaina egiten dute eta euskaraz esaldiak grabatzen hasi dira, honen inguruko kanpaina bultzatuko da udaletan.

Azoka ibiltarirako bi ekitaldi egiteko proposamena aurkezten du, alde batetik karrikatura tailer bat eta bestetik ipuin kontalaria. Ontzat ematen dute bildutakoek proposamena.

11- Informazio orokorra.

- Osasun Programen dirulaguntzaren onespena. Jaso dira 1935 euro emakumeen programa burutzeko. 1242 euro ongizate emozionalaren programarako eta 898 euro helduen programarako. Bukatzeko afektibo sexual programarako 1455 euro jasoko dira.

- Zahartze aktiborako programaren dirulaguntza ere jaso da 4267 eurokoa. Yoga programarako.

- Industria ataletik jaso da industrigunearen urbanizazioaren 1 faserako laguntza 108.177 eurokoa.

- Arte eta Kultura programarako 2000 euro onartu dira 7051 euroko gastua kontutan hartuz.

- Botikariak bidalitako gutuna irakurtzen du alkateak, bertan adierazten da botikek gabean ez direla irekiak egongo, larrialdi bat dagoenean osasun etxera joan behar denez, bertan izango dute botika.

Zabaldu da kontzejuetan informazio hau.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza ere jaso da langabetuen kontratazioagatik osotara 8400 euro baina roberto Martinek kontratua ez zuenez bukatu berari dagozkion 1800 euroak bueltatu beharko ditugu.

-2023ko ekarpena JEZ zergaren ez kobratzearen ingurukoa 10462.85 euro, horietatik 5231 euro jada ordaindu dituzte, lehen ekarpen bezala.

-Baimena eman dute BTT ibilbideak finkatzeko Basaburuan zehar, 10. Poligonoko 32. Lursailean.

-PIL programan onartu dute Arrarasko kontzejuak eskatutako laguntza, herrikoetxean bizitza bat egiteko. 102.000 euro inguruko aurrekontua du obrak.

- Taxi baimenaren esleipenaren inguruan, bigarren saiakera egitea proposatzen du alkateak, aurreko epealdian ez zen interesdunik aurkeztu eta hortaz harremanetan egon da Larraungo alkatearekin, taxiaren zonaldea zabaltzeko larraun ere barne sartzeko. Irekitzekotan beste udalerrri batzuk ere sartzeko aukera aztertuko da, ondoko udaleko ordezkariekin aztertuko da gaia, taxi zerbitzu amankomunatu bat sortzeko.

Momentuz plaza berriro esleitzeko prozedurari hasiera ematea adosten dute bildutakoek onartu baldintza plegua eta 3 hilabateko epea ireki Nafarroako aldizkari ofizialean argitaratzen denetik proposamenak aurkezteko.

12. Erregu-galderak

Micaela Elizalde galdetzen du nola dagoen Aizarotz kontzeju eratzearen tramitazioa.

Alkateak azaltzen du hitz egin zuela NUKF-eko idazkariarekin eta harek azaldu ziola jada eratu eta bildu dela batzorde mistoa eta baiezko erabakia hartu duela, orain erabaki hori berretsi behar dute politikoei osatutako batzordeak.

Azaroko hauteskunde partzialak baino lehen onartua egoteko eskaera luzatu ziola adierazten du eta abuztuaren bukaeran berriro harremanetan jarriko direla elkarrekin, gaiari bultzada emateko.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 19:40 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.